



## Lezoko Unibertsitateko Udala

### 7-12.-PLAZETA FUTBOL ZELAIA

#### TARIFAK

Aplikatuko diren tarifak hauek dira

AZALPENA	TASA
<b>Alokairuak</b>	
Zelai osoa orduko (saioa)	93,70 €
Zelai osoa orduko (partidua)	109,30 €
Zelai osoa txapelketa federatua (partidua)	125,00 €
Txapelketa errejional maila eta gorakoak (partidua)	140,50 €
Zelai osoa txapelketa goiza	281,00 €
Zelai osoa txapelketa arratsaldea	296,80 €
Zelai osoa txapelketa egun osoa	468,50 €
Futbol 7ko zelaia orduko (saioa, talde 1)	58,50 €
Futbol 7ko zelaia (partidua, 2 talde)	66,30 €
Futbol 7ko zelaia (partidua, 2 talde; Bekoerr. 4 Bazkide)	58,50 €
Kirolari Txartela Bazkide/ hilabeteko	5,00 €

#### Kirolari Txartela Bazkide.

Allerru kirol elkarteko kirolariak Plazeta erabiltzeko kirolari txartela bazkide izan beharko dute. Allerru Kirol Elkartek, denboraldia hasi baino lehen kirolarien zerrenda pasako dio udalari altak egin ahal izateko. Kirolariak altan egon beharko dute entrenamenduak hasten diren hilabetean. Denboraldia amaitzen den hilabetean kirolari hauei baja emango zaie.

Lezoko Bekoerrotan Alzate kirol instalazioetan bazkide diren kirolariak ez dute bazkide hau egin beharko. Kirolari Txartela Bazkide indarrean jarriko da 2015. urteko abuztutik aurrera.

#### **SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

##### **Allerru Futbol Taldea.**

Zelaiaren mantentzea eta kontrolaren ardura duenez Allerru futbol taldeak ez ditu finkaturiko tasak ordaindu beharko, ez bere taldeen erabilpenak ematen direnean, ez eta taldeko langile edo laguntzaileen arteko partiduak antolatzen direnean ere.

##### **Lezoko Udala**

Lezoko udalak ez du inongo tasarik ordaindu beharko berak antolatu edo bultzatutako edozein ekintzetarako.

##### **Eskola Kirola**

Eskola kiroleko programaren barnean antolatutako ekintzetarako ez da tasarik ordaindu beharko. Salbuespen hau Lezo, Oarsoaldea eta Lezok hitzartuko lukeen beste edozein udaleko eskolaumei luzatuko zaio.

##### **Iraupen ertaina eta iraupen luzeko alokairuak.**

Erabilpen ordu kopuruaren arabera %10etik %50era doazen hobariak aplikatu dira. Kasua kasuko hobari hauek tokiko gobernu batzordeak onartu beharko ditu.